

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019ko zerga kobratzea

Nik, J. Pedro León García de Olano Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2019ko martxoaren 15etik 2019ko apirilaren 15era, bi egun horiek barne, ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2019ko zerga hauek:

1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea.

A. Borondatezko epea: 2019ko martxoaren 15etik 2019ko apirilaren 15era.

B. Betearazte epea, ehuneko 5eko errekaruarekin: Borondatezko epea bukatutakoan, premiamentuko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Diru-bilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideraturik gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Guardiako Udaleko bulegoetan, txartel bidez.

III. Gomendioak.

Bankuan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Guardiako Udalari jakinaraziko zaio, egin beharreko jakinarazpenetarako.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2019ko martxoaren 1a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEÓN GARCÍA DE OLANO